*Euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duen elkartea*



# Munduko sagardo adituak bilduko ditu, azaroaren 23tik 25era Hernaniko Orona Ideon antolatu duten 2. Sagardo Forumak

noaua 2017-11-16 Ekonomia, Ingurumena, Jendartea, Kultura




idatzi bilaketa irizpidea bilatu

## Eguraldia Usurbilen

| Asteartea | Asteazkena | Osteguna |
|---|---|---|
| 11° 2° | 13° 1° | 12° 5° |
| 10 km/h | 16 km/h | 21 km/h |

tiempo.com +info

## Agenda

ABE 1 ol. (http://www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-1/)
**19:00** Usoa Zumetaren lan grafikoen era... (http://www.noaua.eus/event/usoa-zumetaren-lan-grafikoen-erakusketa/?instance_id=9242)

ABE 5 ar. (http://www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-5/)
**19:00** Irisasi BTT-ren arropa berria es... (http://www.noaua.eus/event/irisasi-btt-ren-arropa-berria-eskuragarri-2/?instance_id=9287)

ABE 6 az. (http://
**12:00** Usurbildarrak Durangoko Azok (http://www.noaua.eus/event/usurbild IGO durangoko-azokan-yolanda-arrieta




Sagarra, sagardoa eta sagardotegiak ardatz hartuko dituen 2. Sagardo Foruma antolatu du Usurbilgo Udala (Hernani eta Astigarragakoarekin batera) kide duen Sagardoaren Lurraldeak, azaroaren 23tik 25era Hernaniko Orona Ideon. Gertuko zein mundu zabaletik etorritako 21 adituek parte hartuko dute, sagardoaren lurralde honetan ospatuko diren sagardoari buruzko jardunaldiotan. Sagarra eta sagardoarekin erlazionatutako kultura, ekoizpena eta turismoaren inguruko jardunaldiak eskainiko dituzte. Ostegun eguerdi honetan aurkeztu dute 2. Sagardo Foruma, astebete barrurako iragarriak dauden ekimenak egingo diren toki berean, Hernaniko Orona Ideon.

**I. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa**

Jardunaldion baitan, I. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa ospatuko da. 11 herrialde ezberdinetako jada izena emanda dauden ehunetik gora sagardo ezberdinek parte hartuko dute. 9 kategoriatan banatuko dute txapelketa: Euskal Herrian ekoiztutako sagardoa, sagardo natural asturiarra, sagardo tradizional frantsesa, sagardo tradizional ingelesa, gaur egungo sagardoak, “Premium” sagardo apardunak, apfelwein (sagardoa), zaporetako sagardoa eta udardoa edo izotzezko sagardoa.

Sona handiko mundu osoko epaileek osatuko dute epaimahaia. Kategoria bakoitzean “Kategoriako onena” den sagardoa izendatuko dute, eta horien artean, “Lehiaketako onena”. Sagardoak baloratzen munduko txoko ezberdinetako epaileak jarriko dituzte. Epaimahaiaren dominak jasoko dituzte puntuazio altuena lortzen duten sagardoek:

-Brontzezkoa, 30-37 puntu lortzen dituzten sagardoek.
-Zilarrezkoa, 38-44 puntu lortzen dituzten sagardoek.
-Urrezkoa, 45-50 puntu lortzen dituzten sagardoek.

Izen ematea, egitaraua eta informazio gehiago, hemen: sagardoarenlurraldea.eus

www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-6/) /?instance_id=9229)

ABE 7 og. (http://www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-7/)
**16:20** Usurbildarrak Durangoko Azokan: ... (http://www.noaua.eus/event/usurbildarrak-durangoko-azokan-erokomeri/?instance_id=9230)

ABE 8 ol. (http://www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-8/)
**11:30** Usurbildarrak Durangoko Azokan: ... (http://www.noaua.eus/event/usurbildarrak-durangoko-azokan-joseba-tapia-eta-besamotzakjakoba-errekondo-2/?instance_id=9234)

ABE 9 lr. (http://www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-9/)
**11:00** Autobus zerbitzua Parisko mobili... (http://www.noaua.eus/event/autobus-zerbitzua-parisko-mobilizaziora/?instance_id=9239)
**17:40** Usurbildarrak Durangoko Azokan: ... (http://www.noaua.eus/event/usurbildarrak-durangoko-azokan-jakoba-errekondo-antton-olariaga/?instance_id=9244)

ABE 10 ig. (http://www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-10/)
**19:40** Usurbildarrak Durangoko Azokan: ... (http://www.noaua.eus/event/usurbildarrak-durangoko-azokan-odolaren-mintzoa/?instance_id=9233)

ABE 13 az. (http://www.noaua.eus/agenda/action~oneday/exact_date~2017-12-13/)
**18:00** “Berdintasuna Ereiten” saioa (http://www.noaua.eus/event/berdintasuna-ereiten-saioa/?instance_id=9246)
**19:00** VIII. Gaztelaniazko literatura-t... (http://www.noaua.eus/event/viii-gaztelaniazko-literatura-topaketa/?instance_id=9247)

Egutegia ikusi ➔ (http://www.noaua.eus/agenda/)

IGO

SAGARDOAREN LURRALDEA

SAGARDO FORUM
SAGARDOARI BURUZKO JARDUNALDIAK
*JORNADAS SOBRE LA SIDRA*



| Data | Gaia | Ordua | Hitzaldia | Hizlaria | Kargua / Enpresa | Moderatzailea | Lekua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2017/11/23 Osteguna** | **Lehengaia: Sagarraren laborantza eta kultura** | 08:45 09:15 | Akreditazio eta dokumentazioaren banaketa | | | | Fundazioa Eraikina Hall |
| | | 09:15 09:30 | Ongietorria eta irekiera instituzionala | | | | Fundazioa Eraikina Auditorium |
| | | 09:30 10:00 | Sagarrondoaren egoera Euskal Herrian | Aitor Etxeandia (Euskadi) | Sagarlan-eko arduraduna | Antxon Mendia (Fruitel-eko Lehendakaria) | Fundazioa Eraikina Auditorium |
| | | 10:00 10:30 | Sagastien landaketa Süd Tirol-en | Franz & Mgdalena (Italia) | Floriunda-ko gerenteak | | |
| | | 10:30 11:00 | Finca Gallinal | Daniel Exner (España) | Finca Gallinal-eko gerentea | | |
| | | 11:00 11:30 | Atsedenaldia | | | | Fundazioa Eraikina Hall/Taberna |
| | **Sagardoa munduan** | 11:30 11:50 | Euskal Sagardoa J.D. berriaren aurkezpena | Unai Agirre (Euskadi) | Euskal Sagardoa J.D.-ko gerentea | Domingo Merino (Fraisoro Laborategiko Zuzendaria) | Fundazioa Eraikina Auditorium |
| | | 11:50 12:10 | Sektorearen jarduera ebolutiboa Euskadin | Ignacio Ruiz de Alegria (Euskadi) | Nekazaritzako elikagaien sektoreko aholkularia Iragest-en | | |
| | | 12:10 12:30 | Sagardoaren gaurko eta biharko erronkak | Iñigo Fernandez (Euskadi) | Sagardo Mahaia | | |
| | | 12:30 12:50 | Sagardoa Normandian | Christian Bosshard (Normandia) | Cambremer erkidegoko udalerrietako Turismo Bulegoko Lehendakaria ("AOC du Pays de Cambremer" Sagardoaren Hiriburua) | | |
| | | 12:50 13:10 | Sagardoa Bretainian | Mark Gleonec (Bretainia) | Bretainiako CIDREF-eko Lehendakaria | | |
| | | 13:10 13:30 | Sagardoaren merkatua Ingalaterran | Mike Nield (Inglaterra) | Sagardoen nazioarteko komertziala | | |
| | | 13:30 13:50 | Sagardoaren merkatua Estatu Batuetan | Brian Rutzien (Chicago) | Sagardoen nazioarteko komertziala | | |
| | | 13:50 14:15 | Bretainia, Normandia eta Euskal Herriko sagardoen dastaketa | | | | |
| | | | | | | | |
| **2017/11/24 Ostirala** | **Sagardoaren turismoa: Txotx esperientzia** | 09:30 09:50 | Euskadiko turismo gastronomikoa | Iker Urcelay (Euskadi) | Basquetour-eko Gastronomia Produktuaren teknikaria | Iker Urcelay (Basquetour-eko Gastronomia Produktuaren teknikaria) | Fundazioa Eraikina Auditorium |
| | | 09:50 10:10 | Sagardoaren turismoa San Sebastian Region-en | Maite Cruzado (Euskadi) | Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaria | | |
| | | 10:10 10:30 | Sagardoaren Lurraldea-ren aurkezpena | Joxe Mari Alberro (Euskadi) | Sagardoaren Lurraldeako Zuzendaria | | |
| | | 10:30 10:50 | Euskal sagardotegien ibilbidearen aurkezpena eta Petritegi, Oiharte eta Iparragirre sagardotegiak | Amaia Zubeldia (Euskadi) | Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteako turismo teknikaria | | |
| | | 10:50 11:10 | Sagardoaren turismoaren garapena Asturias-en | Begoña Medio (Asturias) | Bmedio. Consultoria Turistica-ko eta Asturias for foodies-eko gerentea | | |
| | | 11:10 11:40 | Castañon-eko eskaintza turistikoa: sagardoaren turismoa | Marta Garcia Miranda (Asturias) | Castañon sagardotegiko turismo teknikaria | | |
| | | 11:40 12:00 | Atsedenaldia | | | | Fundazioa Eraikina Hall/Taberna |
| | | 12:00 14:00 | Mahai-ingurua: Sagardoaren Lurradea, etorkizuneko erronkak | | | | Fundazioa Eraikina Auditorium |
| | | | | Amaia Lopez de Heredia (Euskadi) | Akimuko Lehendakaria | | |
| | | | | Rainer Brusis (Katalunia) | Enoturismoko aholkularia eta Innova Management-eko gerentea | | |
| | | | | Iker Urcelay | Basquetour-eko Gastronomia Produktuaren teknikaria | | |

**Sagardoaren lurraldea** • ***El territorio de la sidra***
Kale Nagusia 48 • 20115 Astigarraga • Gipuzkoa • Tel: 00 34 943 550 575 • www.sagardoarenlurraldea.eus

# Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.

Iruzkinak itxita daude.

« Aurrekoa Hurrengoa »

## Komunitatea

Usurbil Gure Esku Dago 2017-02-08

400 herritar frontoian, Maiatzaren 7ko Herri Galdeketaren alde.
Abenduan sortu zen Usurbilgo HERRITZARTU

Usurbil Gure Esku Dago 2017-01-31

OTSAILAK 5: Argazki Erraldoia maiatzaren 7ko Herri Galdeketaren alde.
Maiatzak 7ko Herri Galdeketaren alde 550

Usurbil Gure Esku Dago 2017-01-23

Herri Galdeketaren alde, 500 sinadura dagoeneko!!
Maiatzak 7ko Herri Galdeketaren alde 500

Usurbil Gure Esku Dago 2016-11-21

2017: HERRI GALDEKETA USURBILEN?
Erabakitzeko Eskubidearen aldeko olatu indartsu bat sortzen ari da Euskal Herrian eta

Juanjo Lertxundi 2016-10-29

ZER GALTZEKO PREST ZAUDE?
Irabazi nahi baduzu, jolastu beharra daukazu eta jolastean, galtzeko arriskua daukazu.



Sutegi Udal Liburutegia 2016-09-16

Sutegi Udal Liburutegian ere, ZUMETA BERRIKUSTEN!
Uztailaren 15etik Urriaren 16ra bitarte, Irungo

IGO